



**GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALEI BURUZKO GOGOETARAKO OINARRIEN DOKUMENTUA:
ARARTEKOAREN PROPOSAMENAK, ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZE EGOKIRAKO.**

1. SARRERA

Azken urteotan, aisialdi alternatiborako mugimendua zabaldu da Euskadin, gehienbat 15-29 urteko gazte-taldean artean. Egoitza eraikietan dauden merkataritza lokalak gaitu eta gizarte eta aisialdi helburuetarako erabiltzean datza. Gazteen Euskal Behatokiak bere txostenean dakarrenez, adin horretako herritarren % 20k, gutxi gorabehera 62.000 gaztek, gazteentzako lokala edo lonja dute Euskadin. Errealitate hori sortu da gazte-taldean artean gizarteratzeko eta elkartzeko gune alternatiboak behar direlako; izan ere, gazteek beti konpartitu izan dute denbora herri guneetan eta lokaletan. Askotariko faktoreak daude aipaturiko lokal horien erabilera nagusitzeko kausak azaltzeko (belaunaldi berriek intimitaterako gune gehiago eskatzea, talde horiek gastua egiteko ahalmen handiagoa, erabiltzen ez diren merkataritza lokalak ugaritzea...).

Errealitate hori positiboa eta baketsua gertatu da kasurik gehienetan. Alabaina, oso gutxitan bada ere, arazoak dakartzate lokal horiek jabeen erkidegoaren barruan, gauzez erabiltzen direlako, erabiltzaileek eragindako zarategatik edo erabilera komuneko guneak hartzeagatik. Kezka sortzen duen beste kontu bat segurtasunaren eta osasungarritasunaren arloko egoera egokirik eza da lokaletako batean, aisialdirako birgaikuntza espezifikorik gabe.

Arazo gehiago dakartzaten aisialdiko beste lokal mota batzuen aldean (tabernak edo diskotekak, adibidez) gatazka gutxi sortzen dutela-eta, mugatua izan da administrazioak jarduera kontrolatzeko gauzatu duen esku-hartzea. Kasurik gehienetan, gazteria sailetik esku hartu dute tokiko administrazioek, gero eta zabalagoa den gizarte errealitatea tratatzeko, gazteengana hurbiltzeko eta fenomeno ezagutzeko. Udal esku-hartzearen proposamenei esker, hobetu egin dira lokalen bizigarritasun eta segurtasun baldintzak, eta higiezinako auzokideen arteko elkarguneak erraztu dituzte. Soilik kasu zehatzetan eta auzokideek aurkezturiko etengabeko salaketan aurrean esku hartu dute udalek ingurumen diziplinarako sailetik, arazo gehien sortzen dituzten lokalak kontrolatzeko.

Hala eta guztiz ere, azken bolada honetan ikaragarri handitu da lokal horien kopurua, eta gaiari buruzko administrazio kontrol argirik ez dagoenez gero, ingurumen gatazka gehiago sortzen ari dira, gehienbat jarduerak gauzez sortzen duen zarategatik. Era berean, gorabeheraren bat gertatu izan da, lokalaren



segurtasun egoera txarrak eraginda. Ondorioz, suteak izan dira eta, kasu zehatz batean, erabiltzaileetako baten heriotza gertatu da.

Arartekoak jaso dituen erreklamazioen kopuru handiagoa da gatazkak areagotu izanaren isla. Izan ere, lokalen erabileragatik egindako erreklamazio gehienak zarata arazoak dira, baita udalak jarduera horiek kontrolatzeko duen erantzunik eza ere. Neurri txikiagoan, lokaletako zenbait erabiltzailek lokal berriak zabaltzeko dauden administrazio trabak azaldu dizkigute, baita araudia ez betetzegatik hartutako zigor neurriekin bat ez datozela ere.

Jakin badakigu fenomeno hau nahikoa berria dela eta udal mailako hainbat eremu eta arloren ikuspegitik aztertu behar dela. Balorazio horretan eragina dute koordinatu beharreko politika publikoek, betiere aisialdi jardun berriok jarduerotarako behar den segurtasun eskakizunekin bateratu ahal izateko eta, bestela ezin izan daitekeen moduan, gainerako herritarrek atsedenerako duten eskubidearekin.

Hori lortzen lagungarria izateko, oinarrien dokumentu bat aurkeztu dugu, gazteen lokalei buruzko gogoetarako, Arartekoak azken urteetan eginiko jarduerak abiapuntu hartuta. EAEko hainbat udalekin izandako lankidetzaren emaitza da Eudelekin antolaturiko lan jardunaldia ere, non gai honetan udalek jarduteko dituzten modu batzuk entzun ahal izan ditugun. Zenbait proposamen edo gomendio ezartzea da helburua, herri administrazioek bateratsu jardun dezaten bi ikuspuntu erabiliz: ingurumenean eragina izan dezaketen jarduerak arautzeko eremua betetzea eta gazteen lokal egokiak, seguruak eta gizarteratuak errazteko, gero eta hedatuagoa den fenomeno horretan parte hartzen duten gainerako eragileekin.

2. UDALEK ERABILERARAKO ETA GIZARTE BITARTEKARITZARAKO DITUZTEN JARDUEREI BURUZKO EZTABAIDA

Oinarrien dokumentu hau egiteko, Eudelek 2013ko azaroaren 14an antolaturiko lan jardunaldiko gogoetak izan ditugu kontuan. Hauxe izan zen gaia: "*Gazteen lonjak: Udalek erabilerarako eta gizarte bitartekaritzarako dituzten jarduerak*". Jardunaldi hartan, bost udalek gai honetaz izan dituzten esperientziak entzuteko parada izan genuen.

1. Gasteizko Udalak gida bat egin du gazteen lonjek bete behar dituzten gutxieneko gomendioak biltzeko, Superlonjez izeneko super heroiaren proiektuaren bidez.



2. Portugaleteko Udala da arlo honetan esperientzia gehien duen tokiko administrazioetako bat. "Gazteen eta lonja komunaren proiektua 2004. urtetik" delakoa dute. Droga-mendekotasun sailak kudeatzen du proiektua. Udalak oinarrizko zenbait baldintza betetzea sustatzen du, segurtasuna zaintzeko eta parte hartzen duten alde guztien arteko bizikidetzarako. Lonja horien funtzionamendu irregularren ondorioz sor daitezkeen arazoetarako eta indarreko legeria beteko dela bermatzeko, koordinazio protokolo bat ezarri da droga-mendekotasun sailaren eta udaltzaingoaren artean.
3. Abanto-Zierbenako Udalak hainbat lokal sustatu ditu udaleko 18 eta 30 urte bitarteko gazteen koadrilek aisialdirako erabiltzeko. Parke berriari atxikitako eremu batean daude kokatuta lokalak, egoitza eraikinetatik urrun.
4. Gernika-Lumoko Udalak udal ordenantzaren bidez arautu du funtzionamendua, herritarrekin 2010ean izandako parte-hartzerako prozesu baten ondoren. Gainera, etxabeen eguneroko erabilera kudeatzeko, bizikidetzarako protokolo bat egin da, zertarako-eta lokalen erabilerak eragin ditzakeen bizikidetzak gatazkak eta gertaerak konpontzeko.
5. Elgoibarko Udalak udalerriko gazteen topaguneei buruzko araudia eta bizikidetzak protokoloa onetsi ditu, izan litezkeen desadostasunak edo gatazkak konpontzen saiatzeko.

Lokalen erabileraren definizioan komunak diren zenbait ezaugarri dira errealitate ezberdin horien abiapuntua. Dokumentu honetan bildu ditugu herri erakundeek, gazteen lokalei buruz duten esku-hartzean, gure ustez aintzat hartu behar dituzten printzipioak eta jarraibideak.

3. AISIALDI LOKALEN FENOMENOA. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Gizarte errealitate aktibo aldakorra dira dokumentu honetan baloratu beharreko gazteen aisialdi lokalak, udalerritik bestera aldatzen direnak. Fenomeno horren ondorioz, gazte-talde bat elkartzen da lokal baten alokairua kontratatzeko, eta bertan egon eta elkartzeko toki gisa erabiltzeko egokitzen dute. Gehienetan, musika aparatuek eta telebista, egongelako altzariak eta berokuntza ekipoak izaten dituzte. Oso gutxitan izaten dira sukaldeak edo lo egiteko gaituriko guneak. Pertsona kopurua nahiz ordutegia, normalean, erabiltzaileen autoerregulaziorako arauen arabekoak izaten dira. Hiriguneetatik urrun dauden eremuetan edo



industrialdeetan lokalak erabiltzeko proposamenak daude. Hala ere, gizarteratze arazoak dakartzaten lokalak eraikin kolektiboetako etxabeetan gaituta daudenak dira, gehienbat egoitza eraikinetan.

Hona hemen lokal horien ezaugarri nagusiak:

- ✚ **Gazteen aisialdiaren alternatiba** dira, gaur egun Euskal Herrian sendotu diren aisialdi eremuetan. Handia da egungo lokalen kopurua. Gazteen Euskal Behatokiak emandako datuen arabera, gazteen % 20k lokal bat du, eta % 27k eduki nahi du. Nolanahi ere, agerikoa da haziz doan kopurua dela, krisialdi ekonomikoaren eta higiezinen krisiaren ondorioz. Herri botereek kontuan hartu beharreko errealitatea da, eta gazteengana hurbiltzeko aukera den aldetik eta gazteentzako politikak ezartze aldera (partaidetza, hezkuntza aisialdia, osasunaren sustapena eta droga-mendekotasunaren prebentzioa...), baita segurtasunaren edo osasungarritasunaren arloko arriskuak edo erabilera okerrak gazteentzat eurentzat eta hirugarrenen eskubideentzat izan ditzaketen arazoak saihesteko ere.
- ✚ **Alokairuko lokalak.** Lokalik gehienak alokairuan ematen zaizkie erabiltzaileei. Hirugarren baten esku-hartzea dakar horrek arlo honetan: lokalaren jabeak errentarien esku uzten du lokal gisa birgaitu baino lehen. Hori besterik ez du egiten.
- ✚ **Erabiltzaileen adina.** Kasurik gehienetan, adinekoak dira jardueraren alokairuaren kontratuaren titularrak (%80tik gora 20 urtetik gorakoak dira). Beste kasu batzuetan, gurasoak dira kontratuaren titularrak. Hala ere, erabiltzaileen %40 baino gehiago 20 urtetik beherakoak dira.
- ✚ **Pribatua da lokalaren erabilera.** Ez dago jendearentzat zabalik. Lokalaren neurriaren arabera izan daiteke erabiltzaileen kopurua. 15 pertsona dira batez beste, baina lokalen %15etan 30 lagunetik gora daude.
- ✚ **Erabilera baketsua.** Lokalik gehienetan (%70 inguruan esan genezake) bizikidetza normala dago lokalaren erabiltzaileen eta higiezinako edo inguruko gainerako auzokideen artean.
- ✚ **Eragozpen eta zarataren ziozko gatazkak.** Gainerako kasuetan ikusi denez, gatazkak daude erabiltzaileen eta auzokideen artean. Gehienbat gaueko zaratak eragindako eragozpenak dira, lokalak behar bezala ez erabiltzearen ondorioz. Izan ere, zarata egiten duten aparatuak edo jokoak daude bertan eta,



batzuetan, jarduerarako bizigarritasun eta segurtasun baldintzarik ezagatik izaten da.

- ✚ **Gizarte esku-hartzea.** Gizarte ikuspegitik egiten da lokal horietako udal esku-hartzea (gazteria politikak eta kontsumoen prebentzio politikak), auzokideen arteko gatazkak prebenitzeko. Kasu zehatzetan, zaratengatiko salaketa dagoenean, ingurumen arloak esku hartzen du, lokala ingurumenak kontrolatzeko araudira egokitzea exijitzeko. Kasurik gehienetan, araudia betetzea eskatu zaien lokalak itxi egiten dira, lokalak egokitzeko edo administrazio baimena izapidetzeko zailtasunengatik.
- ✚ **Administrazio kontrola.** Gehienbat lokalen kopurua zenbatzeko eta lokalen segurtasun eta bizigarritasun arauak exijitzeko esku hartu dute udalek. Segurtasuna bermatzera eta jarduerak ingurunean duen eragina eta pertsonentzako eragozpenak gutxitzera dago bideratuta administrazio kontrola. Udalen batek bere araudia du lokal horietarako.

Hala ere, oso kontrol txikia dago lokaletan ingurumenaren eta segurtasunaren aldetik. Gutxi batzuk arautzea baino ez da lortu (lokalen %25 baizik ez daude erregistraturik udalean), sustatzaileen borondaterik ezagatik, udal ikuskaritzaren planifikaziorik ezagatik edo, kontrakoagatik, erabiltzaile taldeek administrazio eskakizunak betetzeko dituzten zailtasunengatik.

- ✚ Araubide argirik eza aisialdi lokal horietarako **segurtasun eta bizigarritasun arauen** gainean. Hainbat faktoreren araberakoak dira lokalen bizigarritasun, segurtasun eta osasungarritasun baldintzak (lokalean aurretik dagoen erabilera eta udal esku-hartzea, zenbait kasutan gutxieneko baldintzak betetzea edo gainerako auzokideen arteko gatazka izatea eskatzen duena). Nolanahi ere, Euskadin dauden lokal gehienetan, erabiltzaileen autogestioaren eta borondate onaren araberakoak dira, neurri handi batean, baldintza horiek.

4. AISIALDIRAKO LOKALEN ERABILERAREN ONDORIOZKO ARAZOAK

Gazteen lokalen inguruan sortutako arazoak lokalaren inguruan bizi direnek helarazi dituzte gehienbat. Lokalen erabiltzaileek ere azaldu dituzte, eta neurri txikiagoan, jabeek. Hala, honako hauek aipa ditzakegu:

- ✚ Udalak lege eskakizunak betearazteko esku-hartzerik eza. Administrazioak nahitaez bete behar ditu ingurumen eta hirigintza diziplina eta ingurumen



kontroleko eskumenak. Hala ere, kasurik gehienetan administrazioak ez du jardueraren funtzionamenduaren aurretiazko kontrolirik. Hainbat zio daude horretarako: ez dago titularren aurretiazko komunikaziorik, jarduera nahikoa txikia da gehienetan eta zailtasunak daude lokalak martxan mantentzeko, alokairuaren baldintza eskasak direla-eta. Udalak ez jarduteak beste batzuen salaketaren menpe uzten lokala erabiltzeko eskubidea, hain zuzen ere legea betetzea exijitzen duten eta eragozpenen ondorioak jasaten dituzten hirugarrenen menpe.

- ✚ Lokalen segurtasunerako eta bizigarritasunerako gutxieneko baldintzak zehazteko zailtasunak. Lokalek izan behar dituzten eskakizunen gaineko ziurgabetasuna da interesatuek adierazitako kontuetako bat. Kasu askotan, komenigarria izango litzateke eskakizun administratiboekin eta teknikoekin zehaztea protokolo orokor bat, lokal bat helburu horrekin ireki eta erabili ahal izateko. Askotariko lokalak daudenez gero, zaila da instalazio horiek aisialdirako erabiltzeko bete behar dituzten baldintza orokorrak aurretiaz zehaztea. Gehienak borondatez gaitzen dira, udal teknikarien gomendioei jarraituz. Hala ere, ez dago erabiltzaileek eskakizun teknikoak aurretik jakin ahal izateko eremu segururik.
- ✚ Zenbait aisialdi jardueraren kontrolik gabeko funtzionamenduaren ondoriozko eragozpenak. Inguruko auzokideek eta egoiliarrek lokalaren erabilera desegokiaren ondoriozko arazoak jasaten dituzte batzuetan, gehienbat zaratak, erabiltzaile gehiegi egoteak edo gauez erabiltzeak eraginda.
- ✚ Lokalaren erabilera intentsiboaren edo lokalaren segurtasunaren eta suteen prebentzioaren gaineko araudia ez betetzeagatik pertsoneri eragindako arriskuak.

5. ADMINISTRAZIO ESKU-HARTZEA. LOKALEN ERABILERARI ERANTZUNA EMATEKO PRINTZPIOAK

Lokal horien ezaugarrienetako bat da administrazioak lokala funtzionatzeko aurretiazko kontrolean esku-hartze txikia. Udal esku-hartzeak, batzuetan, lokalek udalerrian duten erabilerari buruzko azterlana proposatzen du, zenbaitetan eragile interesatuen partaidetza izanik. Errealitateari buruzko azterlana baliagarria izan daiteke sortutako arazoen tamaina edo tipologia zehazteko, baina ezin alboratu edo ordeztu dezake ingurumen legeriaren ondoriozko ingurumen kontrolerako eta diziplinarako ahalmenak erabiltzea.



Zehaztu behar da udal esku-hartzeak ez duela eskatzen aurretik udal ordenantza izatea, jarduera mota hori beren beregi arautuko duena. Ingurumen Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legean ezarritakoaren arabera, nahitaezkoa da, martxan jarri baino lehen, jarduera sailkatuak kontrolatzeko araubide pean jartzea ingurumenerako kaltea edo pertsonentzako eragozpena ekar dezaketen jarduera guztiak. Horregatik, ukipen txikia dakarten aisialdi jardueretan -3/1998 Legearen 62 bis artikulua- arabera-, jarduera jakinarazi behar da alde aurretik. Jakinarazpen hori egiteko, jardueren memoria eta eragina gutxitzeko hartutako neurriak aurkeztu behar dira, baita neurriak betetzen direla egiaztatzeko ziurtagiria ere.

Lege xedapen horrekin bat etorritik, jarduteko printzipio eta jarraibide hauei lotu behar zaie kasu honetan jarraitu beharreko administrazio esku-hartzea:

- ✚ Legezketasun printzipioa. Egungo aisialdi jarduera guztiek bete behar dituzte gure ordenamendu juridikoan bildutako lege eskakizunak. Bi alde ditu printzipio horrek. Alde batetik, administrazioak nahitaez jakin behar du esku hartzea behar duela, legeak hala aginduta eta martxan jarri baino lehen, zein kontrol egin behar duen ingurumenean eta pertsonen osasunean, eragina duten jardueri dagokienez. Bestalde, ezinbestekoa da lege eremua izatea, eta horren bidez, ahalmena emango zaie udalei jarduerak bete beharreko eskakizunak eta zigor neurriak garatzeko.
- ✚ Lege eremu horren baitan, gazteen lokalen erabileraren gaineko xedapen egokiak arautu ditzakete, beren beregi, udal administrazioek, eta udalerrri barruko lokal erabilerarako egokitzat hartu ahal izateko bete behar dituzten eskakizun teknikoak eta segurtasunekoak sar ditzakete.
- ✚ Herritarren partaidetzarako printzipioa. Baldin eta tokiko administrazioek gazteen lokalen erabilera udal ordenantzen bidez arautzea erabakitzen badute, lokalen erabilera berriak ukituriko pertsona guztien partaidetza bermatzeko mekanismoak ezarri beharko dituzte.
- ✚ Administrazio esku-hartzearen printzipioa. Gazteen lokalek berekin dakarten jarduera, gaur egun, aurretiazko jakinarazpenaren araubidearen pean dago. Horretarako, nahitaezkoa da lokala martxan jarri baino lehen udalean gauzatzea jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena. Herri administrazioen erantzukizuna da lokalak exijituriko eremuaren barruan erabiltzea kontrolatzeko esku hartzea.



- ✚ Administrazio kontrolak neutroa izan behar du egin beharreko jarduerari dagokionez. Udalaren esku-hartzean, ez dira bereizi behar gazteen lokalak eta bestelako jarduera motetakoak hala nola elkarteen erabilerarako lokalak, erlijiorakoak edota bestelako aisialdi jardueretakoak, sukalderik gabeko elkarte gastronomikoak esate baterako.
- ✚ Esku-hartze horretan, jardueraren funtzionamenduak uki ditzakeen hirugarrenen eskubideak aintzatesten direla bermatu beharra dago, zehazki etxebizitzan zarataren ondoriozko legez kontrako eragozpenik gabe izateko eskubidea eta eraikinetan segurtasuna izateko eskubidea.
- ✚ Beharrezko informazioa eta laguntza teknikoa eskuratzea. Administrazioak laguntza eta orientabideak eman behar ditu jarduera hasi aurretiko jakinarazpen izapidean exijitzekoa den dokumentazioa prestatzeko. Gainera, informazio eta laguntza tekniko eta materialerako mekanismoak ere ezarri behar ditu, araudian eskaturiko segurtasun eta bizigarritasun baldintzak emateko lokalari.
- ✚ Aisialdi segurua sustatzea gazteen artean. Lokaletako gazteen aisialdia zabaltzea aukera da, funtzionamendurako eskakizun teknikoak eta legalak bete ondoren, herri agintariek bizikidetza gunek horiek susta ditzaten, gazteentzako politikak hitzartzeko eta sustatzeko.
- ✚ Gizarte esku-hartzea eta bitartekaritza bultzatzea. Aipaturiko lege eskakizunekin batera, bere esku-hartzea sustatu behar du administrazioak, lokalon funtzionamenduaren ondorioz gerta litezkeen gatazkak prebenitzeko adiskidetze eta bitartekaritza neurrien bidez. Interesatuen edo jarduerak ukituriko pertsonen partaidetza eta informazioa erraztu behar dituzte gatazkak prebenitzeko edo konpontzeko mekanismoek.
- ✚ Jardueraren titularraren erantzukizunaren printzipioa. Jardueraren titularrari dagokio edo titularrei dagokie lokala aisialdirako jarduera egiteko hirigintza araudiaren eskakizunetara egokitze erantzukizuna. Lokala erabiltzeko baldintzak direla-eta (erabiltzaile kopurua, ordutegia, zaraten kontrola) ingurumen araudia hausteagatiko erantzukizuna exijituko zaie administrazio baimenaren ondoriozko betebeharrak betetzen ez dituzten pertsoneri.



6. PROPOSAMENAK ETA GOMENDIOAK

Ondorio gisa, zenbait neurri proposatuko ditugu, gazteentzako aisialdi lokalak irekitzeagatik antzemandako arazoei erantzun egokia emateko baliagarriak izan daitezkeenak, betiere azaldutako printzipioekin bat etorriz.

- ✚ Gazteen lokalen udal ikuskaritzako plana. Udalek gazteen lokalen udal ikuskaritza plana izan behar dute. Gazteen lokalen errealitatea ezagutzea da helburua, baita gazte-taldeek lokalok behar bezala eta segurtasunez erabiltzen dituztela kontrolatzea ere. Horretarako, lokal horien inbentarioa egin behar dute udalek, segurtasun eta bizigarritasun eskakizunak nahiz ingurumen legeria zenbateraino betetzen dituzten adierazten dutela.
- ✚ Udalek esku hartzeko eta ingurumenerako kontrol programa gehitu beharko dute baldin eta lokalen titularrek ez badute jakinarazi jarduera hasi izana, edo funtzionamendu arazoak edo erabiltzaileentzako arriskuak badituzte. Udalek epe bat ezarri beharko dute lokalak araupetzeko eta kautelazko zenbait neurri emateko. Ondorioz, kasurik arazotsuenetan lokala itxi beharra gerta daiteke segurtasun edo osasungarritasun baldintzarik ezagatik edo alboko pertsonentzako eragozpenengatik.
- ✚ Halaber, exijituriko zuzenketa neurriak betetzeko ondorengo kontrolean esku hartu beharko dute, bereziki herri guneak behar ez bezala hartzeari, ordutegiari eta soinu emisioei dagokienez.
- ✚ Aurretiazko jakinarazpenarekin batera aurkeztu beharreko ingurumen memoriarako dokumentuen ereduak. Udal administrazioek jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenarekin batera aurkeztu beharreko ingurumen memoriaren gutxieneko eduki teknikoari buruzko ereduak eduki behar dituzte. Ingurumen memoriaren eredu horretan, argi ezarri behar dira lokalaren jardueraren hasiera administrazioari jakinarazi baino lehen lokalek bete behar dituzten eskakizun teknikoak eta baldintzak.
- ✓ Zehazki, erabilerak eragin dezakeen zarata gutxitzeko beharrezko zuzenketa neurrien gainekoak, kultur sozietateei exijituriko eskakizunak, hain zuzen kea husteko eta aireztapenerako, betiere ostalaritza, aisialdi eta denbora libreko jardueretarako arau teknikoak araupetzen dituen ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.
- ✓ Lokalen edukieraren kontrolari eta jardueraren funtzionamenduaren ordutegiaren gainean, martxoaren 13ko 36/2012 Dekretuaren eta



otsailaren 11ko 14/2014 Dekretuaren arabera. Dekretu horiek bigarren eta hirugarren aldiz aldatzen dute, hurrenez hurren, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzen dituen Dekretua.

- ✓ 2006ko martxoaren 28ko BOEren ondorioz izan daitezkeen eskakizun teknikoan eta segurtasun eskakizunen gainean, aisialdi erabilera horietarako eraikinetan (instalazio elektrikoa, sute arriskuaren prebentziorako neurriak eta ebakuazioa).
- ✓ Lokalen erabiltzaileek hitzeman behar dute beteko dituztela ingurumen txostenean bildutako bizikidetzak-arauak, eta bitartekotza-bideak bilatuko dituztela sor litezkeen gatazkak konpontzeko.
- ✚ Udal araudia udal ordenantzaren bidez. Lokalen jarduera udal ordenantzaren bidez arautzea baliagarria izan daiteke eremu propioa sortzeko, gazteen lokalen erabilerak udal bakoitzean duen errealitatea kontuan izanik. Halaber, udal ordenantza onesteko administrazio prozedurak interesatuen partaidetza erraztu dezake. Hauxe izan liteke gutxieneko edukia: Eskakizun teknikoak eta segurtasunekoak. Udal ordenantzek beren beregi bildu beharko dituzte gazteen lokaletan izan behar diren instalazioen eta ekipamenduen isolamendu akustikoaren eta segurtasunaren gaineko eskakizunak.
- ✓ **Udal esku-hartzea gatazkak konpontzeko.** Ingurumen legeriak dakarren esku-hartze publikoko tekniken barruan, ordenantzak tresna baliagarriak izan daitezke bizikidetzaren inguruan sor litezkeen gatazkak konpontzeko mekanismo alternatiboak ezartzeko.
- ✓ **Zigor neurriak.** Lokala erabiltzeko baldintzak hautsi dituzten pertsonen gaineko **balizko zigor neurriak direnean, lege xedapenen barruan ukituriko ondasun juridikoa lehengoratzeari sustatzen duten zigorrak sustatu behar dituzte udal ordenantzek.** Beraz, bidezkoa da planteatzea, besteak beste, gizartearentzako lanak egitea (herri guneak garbitzea).
- ✚ Eudelek udal jardun onak ezagutaraztea. Eudelen kasuan (Euskadiko Udalen Elkarteak), eredu bat idaztea susta dezake, gazteen lokalek izan behar dituzten gutxieneko segurtasun, osasungarritasun eta bizigarritasun eskakizunak modu berezian bilduko dituenak.



- ✚ Eudelek eginkizun aktiboa bete dezake udalek ingurumen gatazkak prebenitzeko edo kudeatzeko neurrien sustapenean dituzten jardun onak ezagutarazteko.
- ✚ Alde horretatik, aisialdi jarduera horien titularren, lokalen jabeen eta gazteen lokalen funtzionamenduak uki ditzakeen alboko pertsonen eskubideei eta betebeharrei buruzko gida egitea susta dezake.